

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Legutioko Udala**

**Ayuntamiento de Legutio**

**2016**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK .....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA .....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	9
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak .....	9
III.2 Langileria .....	9
III.3 Kontratazioa .....	10
III.4 Transferentziak eta diru-laguntzak .....	11
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak .....	12
IV. FINANTZA ANALISIA .....	13
V. URTEKO KONTUAK .....	16
ERANSKINAK .....	19
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera .....	19
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak .....	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	20
A.4 Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerak .....	21
A.5 Langileria-gastuak .....	22
A.6 Ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa .....	23
A.7 Emandako transferentzia eta diru-laguntzak .....	24
A.8 Aurrekontuko zordunak .....	26
A.9 Aktibo ez korronea eta aurreko ekitaldietako emaitza .....	27
A.10 Kontratazioaren analisisa .....	28
A.11 Ondare eta aurrekontuko finantza-adierazleak .....	29
ALEGAZIOAK .....	31
ABREVIATURAS .....	35
I. INTRODUCCIÓN .....	37
II. OPINIÓN .....	38
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	38
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	38
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	39
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos .....	39
III.2 Personal .....	39
III.3 Contratación .....	40
III.4 Transferencias y subvenciones .....	41
III.5 Morosidad y otros aspectos .....	42



IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....	43
V. CUENTAS ANUALES.....	46
ANEXOS.....	49
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	49
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	49
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	50
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	51
A.5 Gastos de personal .....	52
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	53
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas .....	54
A.8 Deudores presupuestarios.....	56
A.9 Activo no corriente y resultado de ejercicios anteriores .....	57
A.10 Análisis de contratación .....	58
A.11 Indicadores financieros patrimoniales y presupuestarios.....	59
ALEGACIONES .....	61

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 26a  
Vitoria-Gasteiz, 26 de abril de 2018



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

2/2016 Legea	2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
27/2013 Legea	27/2013 Legea, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoa.
38/2013 FA	38/2013 Foru Araua, Arabako toki erakundeen aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzkoa.
56/2015 FD	56/2015 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onartzen duena.
57/2003 Legea	57/2003 Legea, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
FOFEL	Arabako Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Legutioko Udalaren 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEK gauzatutako aurreko fiskalizazio lana 2000ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatu behar ditu: Udalaren aurrekontuaren likidazioa, balantzea, ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua eta oroitidazkia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berriazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Legutioko udalerrriak 1.747 biztanle zituen 2016ko urtarrilaren 1ean eta Udalaz gain, honako kontzeju hauek esku hartzen dute bertan: Elosu, Goiain, Legutio, Urbina eta Urrunagak; horiek guztiek, batik bat, ur hornidura eta saneamendu, argiteria publiko eta bideak mantentzeko zerbitzuak ematen dituzte. Udalak Gorbeialdeko Kuadrillan esku hartzen du, zeinak modu mankomunatuan oinarritzko gizarte-zerbitzuak ematen dituen eta beste udal zerbitzu batzuetan laguntzen duen; orobat, Gorbeialdeko Inguruak partzuergoan ere partaidea da, zaborrak biltzeko zerbitzua modu mankomunatuan emateko sortutakoa.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Legutioko Udalak zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen 2016ko abenduaren 31n Legutioko Udalaren Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Balantzean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	ONDARE GARBIA
A.6 Larrabeako mantentze gastuak 2011-2016 .....	(143)	-	(143)	(143)
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>(143)</b>	<b>-</b>	<b>(143)</b>	<b>(143)</b>

- Ibilgetu materialak beste administrazio batzuei utzitako instalazioak barne hartzen zituen, guztira 1,3 milioi euroren kostuarekin; horiek, baina, ez dira Udalaren aktiboan barne hartu behar. Halaber, Ibilgetuko materialeko hainbat elementu, 2,7 milioi euroren kostua dutenak, ez dira amortizatzen. Elementu horien balio-galera aintzat hartzeak 2016ko abenduaren 31n pilatutako amortizazioa 2,4 milioi euroan gehituko luke, aurreko ekitaldietako emaitzak kopuru berean murriztuz (ikus A.9).
- Udalak ez du Araba Garapen Agentzia, SA foru sozietateari kobratzeko duen 216.037 euroren kontua erregistratu, Goiain poligonoaren hirigintzako aprobetxamendu kontzeptuan. Berebat, ez da erregistratu sozietate horrek gauzatutako 43.041 m<sup>2</sup>-ko lursail baten eskualdaketa, 1993an onartutako poligonoaren birpartzelaziotik eratorria; izan ere, horren formalizazioa eta zorren kitatzea Udalak hirigintza lanak jasotzeari meneratu zitzaion (ikus A.3).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3. paragrafora bitartean adierazitako salbuespenak alde batera, Legutioko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.





### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- 2016rako Aurrekontua 2016an onartu zen, arautegiak ekitaldiari ekin aurretik onartu behar dela adierazten duen arren. Kontu Orokorra 2018ko martxoan onartu zen, naiz araudiak 2017ko uztailaren 31 baino lehenago onartu behar zela agintzen zuen.
- 2016ko aurrekontura aurreko urteko inbertsioetarako kredituak txertatu ziren, zeinak berriz 2017ko aurrekontuari 1,2 milioi euroren zenbatekoan txertatu zitzaizkion. Kreditu txertaketak gertatzen diren ekitaldian gauzatu behar dira eta ez dagokio txertaketa jarraituak egitea, helburudun sarrerak dituzten kapitalezko eragiketak salbu.
- Goian poligonoko berariazko tasak dituzten erroldak, Araba Garapen Agentzia, SA foru sozietateak bildutakoak, alkateak onartu behar ditu aurrez. Udalak Udalak informazio xeheagoa jaso behar luke sozietate horrek ematen dituen udal zerbitzuen kostuen eta diru-bilketaren kudeaketaren gainean.
- Udalak, urteko itxiera dela eta, ekitaldiko sarreraren kontularitzako saldoak alderatzen ditu diru-bilketarako sistema laguntzaileko saldoekin; komenigarria litzateke egiaztaketa itxitako ekitaldietara zabaltzea.

#### III.2 LANGILERIA

- 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden lan-kontratuko lau kontratu mugagabe 2008, 2014 eta 2015ean gauzatutakoak, zerbitzu kontratuak eraldatu izanaren ondorioz. Horietako batean LZk ez du dagokion lanpostua barne hartzen eta gainerako 3etan lana funtzionarioek garatzea aurreikusten du. Egoera hau zuzentzea komeni da eta horretarako Udaltzak LZ aldatu beharko luke edo zerbitzuak berrantolatu. Honi dagokionez, 2 langilek udal eskumenak mugatuak diren esparrutan garatzen dituzte lanak (hezkuntza eta ingurumena).
- Beste hiru lan kontratu mugagabe 2003 eta 2008koak dira eta lanpostu zerrendako laneko lanpostuak betetzen dituzte; 2008ko bi-biak, ordea, Udaltzak lanpostuak sortu aurrekoak dira. Egokiagoa zatekeen LZn dauden 3 lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratuak gauzatzea, harik eta nahitaezko hautaketa-prozesu bidez behin betiko zuzkitu bitartean.
- 2016ko aurrekontu plantillak funtzionarioen osagarrien zenbatekoa guztira adierazten zuen, osagarriak bereizi gabe (norakoa, berariazko orokorra, dedikazioa, e.a.). Gainera, lan-kontratuko langileei dagokienez ordainsari kontzeptuak bereizi gabe ematen da ordainsari osoa.



### III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 4 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.10):

- Guztira 1,5 milioi euroren zenbatekoan esleitu diren 3 kontraturen administrazio klausulek ondotik adierazitako akatsak erakutsi dituzte esleipen irizpideei dagokienez (A1 akatsa):
  - 1. eta 4. kontratuetan enpresa lehiatzaileen ziurtagiriak balio-neurtzea aurreikusten zen eta udalerriko langileak edo, ez baleude, lurraldekoak kontratatzea.
  - 3. eta 4. kontratuetan hobekuntzak balioztatzen dira, hobegarri diren zerbitzuaren alderdi zehatzak zeintzuk diren adierazi gabe, ez eta balioztatze-sistema zein den ere.
- Irizpide subjektiboen balorazioa ez zegoen justifikatua 2., 3. eta 4. kontratuetan, 1,5 milioi euroan esleitutakoetan. (B1 akatsa).
- Lehiatzaileek esleipenaren jakinarazpenak ez zuen adierazten aztertutako 4 kontratuetan hautaketa egiteko baliatutako argudioak (B2 akatsa).
- Argindarra hornitzeko kontratua 74.998 euroren zenbatekoan esleitu zen publikotasundun prozedura negoziatu bidez, prozedura irekia baliatu beharrean (C akatsa).
- Haur eta gazteen aisialdi-zerbitzuaren kontratua 86.468 euroren zenbatekoan esleitu zen presako prozedura baliatuta, horren erabilera justifikatu gabe. Gainera, urtebeteko 2 luzapen aurreikusi ziren; ordea, araudiak kontratuaren hasierako iraupenera –urtekoa zena- mugatzen ditu luzapenak (C akatsa).
- Balio judizioaren mendeko zenbatespena duten irizpideek formula bidez kalkulaturako irizpideek baino pisu handiagoa zuten garbiketa zerbitzuen kontratuan, 101.685 euroren zenbatekoan esleitutakoan; honenbestez, pleguek adituen batzorde bat osatzea edo berariaz gaitutako entitate baten laguntza aurreikusi behar zuketan (C akatsa).

#### Alderdi orokorrak eta erosketa txikiak

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi.
- 2 kontratutan prezioa balioztatzeko baliatutako formulak mugatu egiten zituen eskaintako merkatzeak eta beste 2tan proportzionaltasun soileko formula baliatu zen, faktore honen egiazko balioa murrizten duena, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez.
- Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean ikusi da zerbitzu bat, hornidura bat eta obra bat zuzenean esleitu direla, guztira 155.435 euroan; horiek prozedura negoziatu modura izapidetu behar ziratekeen (ikus A.10).

### III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Udalerrian diharduten 5 kontzejuek honako zerbitzu hauek ematen dituzte. argiteria publikoa, ur hornidura eta saneamendua, kale garbiketa e.a. Tokiko araudiak zerbitzu hauek Udalaren eskumen modura definitzen ditu eta kontzejuek eskuordetze bidez gara ditzakete; eskuordetze hori, baina, formalizatu egin beharko litzateke eta udalerrian diharduten 6 administrazioen egiteko eta jarduera eremuak bereizi, betiere eskuordetze zerbitzua modu egokian emateari mugatuz. Zehatzago esanda, zerbitzu bakoitzari dagozkion ondasunak identifikatu behar lirateke eta hobekuntza lanak kudeatuko dituen erakundea zehaztu. Alderdi hauek guztiak kontzejuei udal laguntzak esleitzen zaizkienean har litezke aintzat, 2016an 73.686 eurorenak izan direnak eta Udalak arautu ez dituenak (banaketa irizpideak, laguntzen norakoa, aurkeztu beharreko justifikazioa, e.a.).
- Gorbeia Inguruen Partzuergoari egindako 89.634 euroren ekarpenak kalkulaten dira zabor bilketa zerbitzua finantzatzen duten udal tasen balioetsitako sarreraren arabera, bertako estatutuetan aurreikusitako biztanleriaren irizpidea baliatu beharrean. Gainera, ekarpena aurrekontuaren egiazko egikaritza aintzat hartuta kitatu behar litzateke.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak mankomunaturik kudeatzen dituzte Gorbeialdeko Kuadrillak eta zati batean Udalak finantzatzen ditu; Udalbatzak 2017an egungo egoera baliokidetu zuen, modu iragankorrean dirauena, baina Kuadrilla eta GFArekin hitzarmen bidez arautu behar dena. Kuadrillak hirigintzaren kudeaketan eta beste udal zerbitzu batzuetan ere laguntzen du, dagozkion hitzarmen bidez arautu behar direnak.
- Kultur jardueretarako emandako 23.900 euroren diru-laguntzak aurkeztu ziren 5 eskabideen artean hainbanatu ziren, deialdian aurreikusitako balorazio irizpideak aplikatu gabe. Laguntzak ematean eta aurkeztutako ziurtagiriarekin egindako likidazioan ez ziren aintzat hartu jarduerak sortu zituzten diru-sarrerak. Gainera, ziurtagirietarik 4tan oker egindako hartu-agiri, emate-agiri eta fakturak azaleratu ziren.
- 2016ko ekainean onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa baliogabe utzi zen 2017an lehenengo instantzian, Planaren helburu estrategikoak, horiek lortzeko epeak, eta balio-neurketarako banakako baliabideak ez zehazteagatik; Udalak sententzia hau errekurritu zuen.



### III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak ez ditu ordainketa epeei buruzko nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egiten.
- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispideari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Informazio ekonomikoari dagokionez, udalaren web-orrian aurrekontuan barne hartu dira, baina horien egikaritzari buruzko informazioa gaineratu behar da. Berebat, Udalaren jabetzako diren ondasun higiezin zerrenda ere barne hartu behar litzateke, baliatutako kontratazio moldeei buruzko estatistikak, emandako diru-laguntzen xehapena kopuruak eta onuradunak adieraziaz, hautetsien ordainsariak eta zinegotzien ondasun eta jardueren gaineko aitortpenak.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua:

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2014(*)	2015(*)	2016	2014	2015	2016
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.894	2.631	2.099	1.112	1.533	1.201
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	786	806	807	462	470	462
Ondare sarrerak (5. kap.).....	73	58	30	43	34	17
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>2.753</b>	<b>3.495</b>	<b>2.936</b>	<b>1.617</b>	<b>2.037</b>	<b>1.680</b>
Langileria gastuak (1. kap.).....	710	794	869	417	463	497
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	1.320	1.347	1.374	775	785	787
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	311	320	308	183	186	176
<b>B. Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>2.341</b>	<b>2.461</b>	<b>2.551</b>	<b>1.375</b>	<b>1.434</b>	<b>1.460</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>412</b>	<b>1.034</b>	<b>385</b>	<b>242</b>	<b>603</b>	<b>220</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	2	1	1	1	1	1
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>410</b>	<b>1.033</b>	<b>384</b>	<b>241</b>	<b>602</b>	<b>219</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>410</b>	<b>1.033</b>	<b>384</b>	<b>241</b>	<b>602</b>	<b>219</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.).....	68	95	61	40	55	35
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	156	520	159	91	303	91
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	248	111	4	146	64	2
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza.....</b>	<b>(336)</b>	<b>(536)</b>	<b>(102)</b>	<b>(197)</b>	<b>(312)</b>	<b>(58)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	74	497	282	44	290	161
Diruzaintza geldikin likidoa .....	4.263	3.896	4.192	2.503	2.270	2.400
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina .....	3.091	2.850	3.173	1.815	1.661	1.816
<b>Zorpetzea 12.31n .....</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 7 egin dute gora 2016 eta 2014 artean, berezko sarrerek eta hein txikiagoan, transferentziek izandako igoeren ondorioz:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** %11 egin dute gora, izan ere jarduera ekonomikoen gaineko zergen igoerak izan dira ikuskaritzako ekintzengatik, jarduera handiagoaren ondorioz Goiaingo poligonoko tasen bilketan hobekuntzak izateagatik eta 2016an udala Larrabea auzoari ura hornitzeko zerbitzua ematen hasi izateagatik. Zerga eta tasen tarifak ez dira aldatu hirurtekoan. 2015ean unean uneko igoaldi bat izan da hirigintzako eragiketa baten ondorioz 677.623 euroren likidazioa jaso ostean.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 3 egin dute gora itunpeko zergen partaidetzako diru-sarrerak % 9 hobetuz, nahiz helburudun diru-laguntzak % 35 murriztu diren.

**Funtzionamendu gastuak:** % 9 egin dute gora 2014 eta 2016 bitartean, xehapen honekin:

- **Langile gastuak:** % 22 egin zuten gora aztertutako aldian langile berriak kontratatu zirelako, % 1eko soldata igoera izan zelako eta 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaindu zelako.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** % 4 egin zuten gora eta azpimarratzekoa da uraren hornidurak izandako igoera, 2015ean Larrabea auzoaren hornidura zerbitzua bere gain hartzearekin; baita, gastu juridikoek eta Goiaingo poligonorako kontrataturiko zerbitzuek ere (zaborrak eta ur hornidura), 2015ean bi zerbitzu-kontratu desagertzearekin berdintzen direnak, udal langileek beteko baitituzte.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Hirurtekoan egonkor eutsi diote.

**Aurrezki gordina eta garbia:** Aurrezki gordinak sarrera arrunten % 15 egin zuen 2014an eta hobetu egin zuen 2015ean, ekitaldi horretako sarrera jakin batzuen ondorioz; ordea, % 13ra jaitsi zen hirurtekoaren azken urtean, funtzionamendu gastuak sarrerak baino handiagoak izan baitziren.

**Kapital eragiketen emaitza:** Hiru ekitaldietan kapital-eragiketek ez dute eragiketa arruntek sortutako aurrezki kontsumitzen eta kontzejuei emandako diru-laguntzak gailentzen dira, administrazio hauek udalerrian egikaritutako garrantzizko lanak zati batean finantzatzen dituztenak.

**Diruzaintza geldikina:** Aldaki honek egonkor eutsiko dio hirurtekoan, taulako bi geldikinen arteko aldea milioi 1 euroren finantzaketako desbideratzeak izateari zor zaiolarik, aurreko urteetako hirigintzako diru-sarreraren kontzeptuan; horiek udal zerbitzuetako ekipamenduetan inbertsioak egiteko erabil daitezke. 4,2 milioi euro likidoren Diruzaintza Geldikinak ekitaldiko sarrera arruntak gainditzen ditu eta hirurtekoaren kapital-eragiketen emaitza laukoizten du. Gogoan izan behar da 2016ko abenduaren 31n zeuden konpromisoek 1,6 milioi euro egiten zutela.

**Zorpetzea:** Hirurtekoan Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.

**Ondorioa:** Gastu korronteez izaera bereko sarrerekiko izan duten igoera handiagoak zertxobait murriztu du eragiketa korronteez sortutako aurrezki maila, 2016an sarrera korronteen % 13 egin duena. Alabaina, kopurua behar hainbatekoa izan da hirurteko zerbitzu publikoetan inbertsioak finantzatzeko eta etorkizunean autofinantzaketak eta une jakinetan Geldikina baliatzeak bide emango dio Udalak kudeatzen dituen zerbitzu publikoek behar dituzten inbertsioei aurre egiteko.



**Aurrekontuaren egonkortasuna:** 38/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, Udalaren kontu-hartzaitzak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. 2016ko Likidazioari buruzko txostenak ondorioztatu du:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da eragiketa ez finantzarioetan 283.993 euroren superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, 2016ko Likidazioan zenbakarria den gastua % 1 gehitu baita, % 1,8ko mugaz beheiti.

Zorpetzeari dagokionez, Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.



## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. AITORT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	% EXEK.
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Zerga zuzenak .....	A.3	1.146	-	1.146	1.170	1.129	41	102
2.- Zeharkako zergak .....	A.3	35	-	35	36	29	7	103
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	759	93	852	893	785	108	105
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4	826	15	841	807	789	18	96
5.- Ondare sarrerak .....	-	89	-	89	30	26	4	34
7.- Kapitaleko transferentziak .....	A.4	-	65	65	61	22	39	94
8.- Finantza aktiboak .....	-	20	2.044	2.064	-	-	-	(*) -
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>2.875</b>	<b>2.217</b>	<b>5.092</b>	<b>2.997</b>	<b>2.780</b>	<b>217</b>	<b>(*) 98</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	GABE	% EXEK.
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak .....	A.5	889	16	905	869	852	17	96
2.- Ondasun arruntan eta zerb. kontrat. ....	A.6	1.520	121	1.641	1.374	1.272	102	84
3.- Finantza gastuak .....	-	1	-	1	1	1	-	100
4.- Transferentzia arruntak .....	A.7	342	-	342	308	188	120	90
5.- Kreditu glob. eta bestel. ustekabekoak ..	-	22	(21)	1	-	-	-	-
6.- Inber. errealak .....	A.6	31	1.778	1.809	159	41	118	9
7.- Kapitaleko transferentziak .....	A.7	50	333	383	4	3	1	1
8.- Finantza aktiboak .....	-	20	(10)	10	-	-	-	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>2.875</b>	<b>2.217</b>	<b>5.092</b>	<b>2.715</b>	<b>2.357</b>	<b>358</b>	<b>53</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>282</b>			

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOB.R./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak .....	A.8	1.195	(2)	224	969
Hartzekodunak .....	-	578	4	564	10
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>2</b>		

#### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak .....	2.997
Aitortutako obligazioak .....	(2.715)
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>282</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>2</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>284</b>
Finantzaketa desbideratzeak .....	27
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak .....	44
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>355</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2016.1.1ean .....	3.915
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza .....	284
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak .....	(7)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN LIKIDOA 16.12.31-N</b>	<b>4.192</b>
Diruzaintza .....	3.497
Aurrekontuko zordunak .....	1.186
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	(*) 1.132
Aurrekontuzko hartzekodunak .....	(368)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(199)
Kaudimen-gabez. zuzkidura .....	(1.045)
Elkarkidetzako atxikiak .....	(11)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN LIKIDOA 16.12.31-N</b>	<b>4.192</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina..... (Ikus A.2)	(1.019)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA</b>	<b>3.173</b>
(*) Eperako 1,1 milioiren ezarpena, 2017ko uztailean iraungitzeak.	
<b>ZORPETZEA 16.12.31n</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	A.9	<b>9.293</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>13.497</b>
Ibilgetu ukiezina.....		58	Ondarea .....		4.859
Ibilgetu materiala.....		9.235	Aurreko ekitaldietako ondorioak .....	A.9	8.637
			Jasotako diru-lag., emaitz. egozteko daudenak		1
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>4.770</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>566</b>
Kudeaketa eragiketengatiko zordunak....		141	Zorrak epe laburrera .....		274
Kobratzeko bst. knt.batzuk e/lab.....		1.132	Hartzek. eta e/lab. ordain. bste knt btzuk...		292
Eskud. & bst. aktibo likido batz. ....		3.497			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>14.063</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>14.063</b>

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2016 Euroak milakotan

Zergak.....	1.206
Tasak .....	849
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak .....	867
Kudeak. arrunteko beste sarr. batz. ....	52
Hornidura gehiegizkoak .....	48
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.022</b>
Langileria-gastuak .....	(876)
Soldata, lansariak eta antzekoak.....	(660)
Gizarte zamak .....	(216)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak.....	(313)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(1.503)
Ibilgetuaren amortizazioa .....	(A.9) (285)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(2.977)</b>
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA</b>	<b>45</b>
Balio-narr. eta ibilgetu ez finantz. eta aktib. besterenganatzeag. emait. .(A.9)	(59)
Beste kontusail ez arrunt batzuk.....	7
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(7)</b>
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>7</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>-</b>



## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZATUTAKO ENTEAREN IZAERA

Legutioko Udala toki erakundea da, oinarrizko alderdietan 57/2003 Legeak eta 27/2013 Legeak aldarazitako TAOAlek eta 2/2016 Legeak arautua.

Aurreko arautegiak udalek ematen dituzten eskumen eta zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, hiri garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur eta kirol jarduerak.

Ekitaldian ezargarria zen ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan zen:

- 3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 56/2015 Foru Dekretua, Arabako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

2016ko urteko kontuak izan dira 56/2015 Foru Dekretuaren arau esparruarekin formulatu diren lehenengo kontuak. Horregatik, balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak eta informazio alderagarria duten gainerako egoerek ez dituzte aurreko ekitaldiari buruzko datuak jasotzen; ordea, oroitidazkian 2016ko hasierako saldoen eta 2015eko itxirakoen arteko alde nagusien berri ematen da (ikus A.9).

### A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUZKO ALDAKETAK

2016ko Aurrekontua hasiera batean 2016ko ekainaren 2ko Udalbatzak onartu zuen eta 2016ko ekainaren 10ean eman zen argitara ALHAOn. Behin betiko onartutako aurrekontua 2016ko uztailearen 11ko ALHAOn eman zen argitara.

Ondoren, 2016ko aurrekontu aldaketak kapituluka xehatuko ditugu:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu txertaketa	Kreditu osagarria	Kreditu gaikuntza	Transferent.		GUZTIRA
				-	+	
3. Tasak eta best. sarrerak .....	-	7	86	-	-	93
4. Transferentzia arruntak .....	-	15	-	-	-	15
7. Kapital transferentziak.....	-	65	-	-	-	65
8. Finantza aktiboan aldak. Geldikina .....	1.637	407	-	-	-	2.044
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.637</b>	<b>494</b>	<b>86</b>	-	-	<b>2.217</b>
1. Langileria-gastuak .....	-	19	-	(3)	-	16
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak .....	4	33	86	(5)	3	121
5. Kreditu glob. eta bestel. ustekabeak .....	-	-	-	(21)	-	(21)
6. Inbertsio errealak.....	1.633	109	-	(5)	41	1.778
7. Kapital transferentziak.....	-	333	-	-	-	333
8. Finantza aktiboak .....	-	-	-	(10)	-	(10)
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.637</b>	<b>494</b>	<b>86</b>	<b>(44)</b>	<b>44</b>	<b>2.217</b>

Aldaketek gastuen hasierako aurrekontua % 77 gehitu zuten eta izapidetu ziren 11 espedienteetatik 4, Udalbatzak onartu zituen eta 7, Alkatetza dekretu bidez. Sarreren aurreikuspenak bete egin ziren eta gastuen aurrekontuaren % 53 egikaritu zen.

Udalaren Aurrekontuaren likidazioa 2017ko matxoaren 8ko Alkatetzaren dekretu bidez onartu zen. Udalbatzako lehendakariak aurkeztutako Kontu Orokorrak Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso zuen eta jendaurrean agertu ostean, batere erreklamaziorik jaso ez zuela, Udalbatzak 2018ko martxoaren 5ean onartu zuen.

2016ko abenduaren 31n zeuden milioi 1 euroren finantzaketa-desbideratzeak hirigintzako sarrerek eta ondarearen salmentek eragindakoa dira, nagusiki 2006 eta 2008an gertaturikoak. Hirigintzako araudiak agintzen du sarrera hauek babestutako etxebizitzak sustatzera, zuzkidura publikoak zaharberritu edo eraikitzaera, jarduera ekonomikoetarako lurzorua erostera, ondare historikoa zaharberritza edota udal ekipamendu kolektiboak hobetzera emateko.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2016ko ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehapena:

	Euroak milakotan
<b>KONTZEPTUA</b>	<b>Diru-sarrerak</b>
Hiriko ondasun higiezinaren gaineko zerga .....	765
Landako ondasun higiezinaren gaineko zerga .....	17
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga .....	105
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga .....	228
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga .....	55
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>1.170</b>
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga .....	36
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>36</b>
Zabor-bilketa .....	90
Goian industri Polig.: zabor-bilketa eta uraren hornidura eta saneamendua.....	420
Larrabea urbanizazioa urez hornitzea .....	53
Kirol instalazioak erabiltzeagatiko kuotak .....	16
Kirol zerbitzuak.....	32
Enpresa hornitzaileek lurzorua, zorupea eta lur-gainaren erabilera .....	219
Gainkargu eta interesak .....	6
Operadore telefonikoen konpentsazioa.....	16
Bestelako txikiago batzuk: hilerria, udalekuak, kultur-zerbitzuak, e.a.....	41
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>893</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>2.099</b>

1993an Udalak hitzarmen bat izenpetu zuen foru sozietate batekin Goiaingo industria-poligonoan zabor-bilketa eta ur hornidura eta saneamenduko udal zerbitzuak eman zitzaizkien; berebat, birkontratazioa baimendu eta udal tasak biltzeko egitekoak agindu zitzaizkien. Hitzarmenak aurreikusten zuen foru sozietateak aurreikusitako defizita bere gain hartuko zuela; honenbestez, Udalak sarrera eta gastu modura uraren hornidura eta saneamendu tasa kontzeptuan eta zabor bilketa kontzeptuan kitaturitako zenbatekoak erregistratu ditu (ikus

A.6), hurrenez hurren 380.602 eta 39.550 euroren zenbatekoan, biak ere 2016ko ekitaldiari dagozkiola.

Aurreko hitzarmenari dagokionez, Araba Garapen Agentzia, SA foru sozietatearen kontuek 216.037 euroren pasibo baten berri eman dute, poligonoa urbanizatzeko lanak jasotzean Udalari ordaindu beharrekoak. Berebat, une horretan beretan Udalari hirigintzako aprobetxamendu kontzeptuan 43.041 m<sup>2</sup>-ko lursail bat emango zaiola adierazten da.

#### A.4 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2016an transferentzia eta diru-laguntza korronte eta kapitalekoek eragindako sarrerak:

ERAKUNDEA ETA KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONTEAK	KAPITALA
<b>Arabako Foru Aldundia</b>		
Zerga itunduak (FOFEL): Konturako ordainketak 2016 .....	733	-
Zerga itunduak (FOFEL): Estatuko laguntzen berreskurapena .....	3	-
Kirol-, kultur-, baso-jarduerak eta euskara gizarteratzekoak .....	13	-
Gazteriaren eta Gizarte Ongizatearen foru erakundeak: gazteentzako jarduerak eta adingabeei babesa eta ematekoak .....	8	-
<b>EAE</b>		
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	16	-
Eskola publikoa: segurtasun-instalazioetan hobekuntzak eta jolastokiko estalkian obra ....	10	47
Irisgarritasun Plana gaurkotzea .....	-	11
Bibliografia funtsak, bake-epaitegia, prestakuntza ikastaroak eta bidegorria .....	9	3
<b>Estatua</b>		
Zerga ez itunduak .....	2	-
<b>Toki Erakunde Txikiak</b>		
Legutioko kontzejua-eragindako hirigintza lanak .....	13	-
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>807</b>	<b>61</b>

Itunpeko zergetan parte hartzeagatiko sarrerak (FOFEL) diru-bilketa balioespenak oinarri hartuta kalkulaturiko konturako kobrantzei dagozkie, hurrengo urtean kitatutakoak.

Arabako toki erakundeen 2008, 2009 eta 2011ko FOFELen likidazio negatiboak geroratu egin zituen AFAk eta dedukzioak egin zituen (urteko kitapen positiboak eta % 2ko dedukzioa udalen funts osagarritik, nagusiki), 2017ra arte AFAk banakotu ez zituenak, harik eta 2016ko FOFELen likidazioa egin zuen arte. Azken hau positiboa izan zen 3.024 euroan Udalarentzat eta AFAk Udalak zuen zorrari aplikatu zion, zorra kitatuaz. Nolanahi den ere, Arabako udalerriek AFArekin likidazio negatiboengatik duten zorra kitatu gabe zegoen 2016ko abenduaren 31n eta datozen 4 urteetan dedukzioak eragingo ditu 51 arabar udalen FOFELen berariazko funts osagarrian, 2,8 milioi eurorena izan delarik 2016an.



## A.5 LANGILERIA GASTUAK

Ondotik Udalaren langile-gastuak xehatu dira:

KONTZEPTUA	Gastua 2016	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 16/12/31
Goi kargudunak-alkatea .....	27	-	1
Funtzionarioak .....	330	10	7 (*)
Lan-kontratu finkoko langileak .....	221	4	8 (**)
aldi bat. lan-kontr. lang. (Lanbideko enplegu prog. 2 kontratu).....	75	-	3
Ordainsariak guztira.....	653	14	19
Gizarte Segurantza .....	207		
Elkarkidetza BGAEko kuotak (4 langilerenak) .....	4		
Prestakuntza, aseguruak .....	5		
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>869</b>		

(\*) 2 lanpostu jabeek beteak eta 4, bitartekotasunez. Gainera, bitarteko langile batek jabearen lizentzia betetzen du.

(\*\*) Postu 1 bitarteko langilearekin eta lan kontratupeko 7 langile mugagabe ez finko.

2016an Udalak langileen soldatak % 1 igo zituen.

2016an 19.044 euro ordaindu dira, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren azken ordainketaren % 49,73 egin duena.

## Altak

2016ko ekitaldian Udalak ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kopurua
<b>Bitarteko funtzionarioa</b>	<b>1</b>
Ordezkapena .....	1
<b>Aldi baterako lan kontratupekoak (17 langile)</b>	<b>17</b>
Ekoizpen inguruabarretarako kontratua .....	17 (*)
<b>GUZTIRA</b>	<b>18</b>

(\*) kontratuatarik 10, 1 eta 4 egun bitartekoak.



## A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Hona hemen Udalaren gastuen 2. kapituluaren xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Gastua	
Urrunagan lursail alokairua .....	1	
Eraikuntzak eta instalakuntzak konpondu eta zaintzea.....	122	
Bulegoko materiala eta liburutegiko liburuak .....	25	
Argindarraren horniketa.....	85	
Ur-, gas- eta bestelako hornidura .....	103	
Komunikazioak .....	12	
Erantzukizun zibil, eraikin eta ibilgailuen aseguruak eta zergak .....	22	
Hainbat gastu .....	226	
Herriko jaiak eta ospakizunak .....	73	
Jarduera soziokulturalak .....	53	
Haur eta gazteentzako jarduerak .....	34	
Gastu juridikoak .....	28	
Bestelako txikiago batzuk .....	38	
Enpresek egindako lanak .....	770	
Goian industria-polig.: Araba Garapen Ag. zaborra eta uraren kudeak. (A.3) .....	420	
Udal eraikinen garbiketa .....	128	
Kirol ikastaroak eta pilotalekuaren kudeaketa .....	89	
Haur eta gazteen aisialdia .....	56	
Musika, hizkuntza eta kultura ikastaroak .....	32	
Nomina-, aseguru- eta lege-aholkularitza.....	19	
Posta zerbitzua, azterlanak eta beste txikiago batzuk .....	26	
Udalbatzara joateagatiko zinegotziei egun-sariak .....	8	
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.374</b>

Larrabeako urbanizazioa kudeatzen zuen hirigintzako entitateak 2011n eskatu zuen Udalak bere gain har zezala sektoreko hirigintzako araudiak ezarri zion urbanizazioaren mantentze-lana. Eskaerari uko egin zitzaion 2011n, eta 2014an epaia ebatzi zen, zeinak Udala zerbitzua 2011z geroztik bere gain hartzera derrigortzen zuen; horren ondorioz, 2015ean 49.458 euroren hasierako ordainketa bat egin zuen, baina aldeak zeuden beste gastuen kontu-sail batzuetan, gastuen likidazioa 2017ra arte atzeratu zutenak, non 142.566 euroren bigarren ordainketa bat egin zen, ekitaldi horretako aurrekontuaren kontura.

### Inbertsioak

Hona hemen 2016ko inbertsioen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Estali gabeko igerilekua eta aldagelak (obra eta zuzendaritza fakultatiboa) .....	27	1.326
Garazi Ikastolako jolasgunea estali .....	78	-
Irisgarritasuneko Udal Plana gaurkotzeko azterlana.....	18	-
Kiroldegia: Hatz-azterna bidezko sarbide sistema .....	-	26
Gimnasioan sauna jartzea, pilotalekuko sabaiko lanak eta bst. txikiago batzuk.....	36	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>159</b>	<b>1.357</b>



## A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZAK

Ondotik transferentzia eta diru-laguntza korrante eta kapitalekoak jaso ditugu:

	Euroak milakotan
Onuraduna eta diruz lagundutako jarduera	Gastua
<b>SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK</b>	<b>231</b>
Gorbeia Inguruak Partzuergoa-zabor-bilketa zerbitzua .....	89
5 kontzeju-ibilgailuen zirkulazioari buruzko zergaren sarreretan partaidetza .....	74
Gorbeialdeko Kuadrilla: 2015eko ekarpenaren likidazioa.....	13
" " : 2016aren konturako ekarpena.....	38
AFA-gizarte-larrialdietarako laguntzen banaketa eta katastroa mantentzeko kostua.....	17
<b>DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK</b>	<b>39</b>
4 Kontzeju: auzoetako jaiak antolatu .....	24
Laguntza Bat elkartea: urria kulturala jarduerak.....	6
Udalen Eudel eta Udalbiltza elkarteak .....	4
2 kontzeju (Arabako bola-jokoa sustatzea) eta 6 elkarte (euskararen sustapena) .....	5
<b>DEIALDIA</b>	<b>38</b>
5 elkarte: kultura jarduerak .....	24
4 elkarte: kirol-jarduerak .....	10
Beste txikiago batzuk (10 onuradun).....	4
<b>4. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>308</b>
Urrunagako kontzeju-2 obren proiektuak.....	(*) 4
<b>7. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>4</b>

(\*) Elosuko kontzeju: 188.286 euroren diru-laguntza konpromisoa, 2017an esleitutako urbanizazio lanerako.

Gorbeia Inguruak Partzuergoari 2016an egin beharreko ekarpenak kalkulatzeko aurreikusitako defizita eta udalerrri bakoitzean zabor-bilketarako tasaren bilketa-balioespenak hartu ziren aintzat. Partzuergoak 21.828 euroren superabita eskuratu zuen 2016an eta gastu orokorretarako geldikina 2016ko abenduaren 31n 390.831 eurorena zen.

Gorbeialdeko Kuadrilla eskualde eremuko foru erakundea da eta finantza-iturri nagusia FOFELEko diru-sarrerak ditu, kide diren 6 udalek mankomunaturik egin edo eskuordetzen dituzten zerbitzuen kontzeptuko diru-laguntza eta udal ekarpenak, alegia. Gastu modura aitortutako 2016ko ekarpenak 37.588 eurorenak izan ziren eta 2017an egindako azken likidazioak honako xehapen hau zuen:

	Euroak milakotan
<b>KONTZEPTUA-ZERBITZUA (Kuadrillak baliatutako banaketarako irizpidea)</b>	<b>Ekarpena</b>
Arkitekto eta ark.teknikoaren kontratazioa (FOFELEN diru-lag. % 10,6ko kontratu garbiaren kostua).....	23
Mankomunaturiko oinarritzko gizarte-zerbitzuak (defizitaren 1/6 bat).....	7
Agirien udal artxiboaren zerbitzua kontratatzea (defizitaren 1/5 bat).....	5
Sustapen ekonomikoa, turismoa, kultur jarduerak, argitalpenak (defizitaren 1/6 bat) .....	6
Kuadrillaren funtzionamendu gastu orokorrak (defizitaren 1/6 bat).....	3
